



Prensa oharra

Kontsumitzaileek eman diote saria

**EROSKI AUKERATU DUTE HIRUGARRENEZ
URTEKO ON LINE SUPERMERKATURIK ONENA**

- **Urteko WebShop saria eman diote EROSKI Onlineri on line supermerkatuen kategorian**
- **Bozketan, kontsumitzaileek zenbait ezaugarri baloratu dituzte, hala nola kalitatea eta prezioa, sortaren tamaina, bezeroarenganako zerbitzua, eskarien zerbitzua, promozioak eta erabiltzaileen esperientzia**

Elorrio, 2019ko urriaren 23a.- Kontsumitzaileek [EROSKIren Interneteko denda](#) aukeratu dute Espainiako on line supermerkatu onena hirugarren urtez jarraian. EROSKIk gaur hartu du saria, Bartzelonan, [2019-2020ko Merkataritza Sariketaren](#) zeremonian.

Urteko WebShop saria eman diote EROSKIri on line supermerkatuen kategorian. Kontsumitzaileek on line bozkatuta ematen dute saria; horretarako, supermerkatuaren gogobetetze maila neurtzen dute, eta balorazio orokor bat egiten dute. Espainian dagoen kontsumitzaile lehiaketarik handiena da, eta Retailaren saileko merkatu azterketarik handienetako bat.

Bozketan, honelako aldaerak baloratzen dituzte: kalitatea eta prezioa, sortaren tamaina, bezeroarenganako zerbitzua, eskarien zerbitzua, promozioak eta eskaintzak, eta erabiltzaileen esperientzia.

"Gure on line supermerkatua erraz erabiltzen da, eta marka propioko eta fabrikatzaileen markako produktu sorta egoki bat du, kontsumitzaileari aukera askatasun handiagoa emateko eta erosketa jasangarri bat egiteko. Aurten ere, proposamen multikanalerantz eraldatzeko egiten ari garen apustua aitortua izan zaigu; proposamen horrekin, irtenbide berritzaileak ematen dizkiogu kontsumitzaileari, haren erosketa globalaren esperientzia hobetuta. EROSKIIn gogor lan egiten dugu teknologia berriek ematen duten aukera aprobetxatzeko. Hala, kontsumitzailearekin erlazionatzeko era berriak asmatzen ditugu; izan ere, gaur egun guztitarako kanalerantz doa bizkor batean", esan du EROSKIren On-line negozioaren zuzendariak, Mari Mar Escrigek.

EROSKI

MKCOM – Komunikazio korporatiboa

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



EROSKIk *on line* duen negozio eredu ezin hobere ezkontzen da guztitarako kanalen estrategiarekin. Kontsumitzaileek espero dutenaren neurriko proposamena da, mundu fisikoko abantailak txertatuak baitaude Interneteko supermerkatuan; gainera, kanalen arteko erosketa esperientzia uniforme bat bermatuta dago, eta erositakoa doan eta berehala jasotzeko modua ematen du (autoz zein oinez) lau ordu igaro baino lehenago bere 50 gune pasatxo bidez", esan du EROSKIren Online Negozioaren arloko zuzendariak, Mari Mar Escrigek.

Erosketak *on line* egiteko erraztasun berriak

On line supermerkatuak erraztasun berriak dakartza (azken eskariak, zerrenda, ohiko erosketak...), zeinak erosketa denbora gutxian egiten laguntzen baitute. Azken hilabeteetan, EROSKIk hobekuntzak egin ditu ildo horretan. Zehazki, produktuak baloratzeko eredu bat ezarri du, iritzi egiaztatuekin; horrela, bezeroei aukera ematen die erositako produktuen gaineko esperientzia besteei azaltzeko, eta lagundu egiten die beste erabiltzaile batzuei erosketaren hautua egiten. *"Balorazioak ditugu 1.500 produktutan, eta gure markako produktuen %95ek baino gehiagok oso balorazio ona jaso dute"*, aipatu du Mari Mar Escrigek.

Bestalde, EROSKIk gehiago garatu du sareko dendaren bilatzailea. Horri esker, gaur egun gehiago asmatzen du emaitzen iradokizunetan; izan ere, bilaketa pertsonalizatuek bezeroaren erosketak hartzen dituzte aintzat, bai denda fisikoan egindakoak eta bai sarean egindakoak.

EROSKI

MKCOM – Komunikazio korporatiboa

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA

CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL

EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)